

KUXKUXTU TXARANGA, 40 URTE ZUBIAK ERAIKITZEN

Otsailaren 23an aurkeztu zuten jendaurrean "Kuxkuxtu: Parean, Ondoan, Elkarrekin" dokumentala, Kuxkuxtu Txarangari buruz Arri Iraeta Irigarai (Zumarraga, 2001) ondu duen ikus-entzunezkoa. Kuxkuxtu Txarangaren 40. urteurrena aitzakiatzat hartuta, eta Iparra Hegoa elkartearen bultzadarekin, Urruñan sortu eta Euskal Herri osoan bidelagunak egin dituen musika taldea hobeto ezagutzeko aukera aparta da dokumentala, Kuxkuxturen urteotako lan bikaina balioan jartzen duena.

Aurkezpena Pausuko Xaia ostatuan egin zen, Kuxkuxtu Txarangaren egoitza nagusitzat har daitekeen ostatuan. Izan ere, Beñat Elizondok kudeatzen du Xaia, eta Beñat da Kuxkuxturen arima, dokumenta-

Asier Aiestaran

«Kuxkuxtu ez da txaranga soil bat. Euskal Herri osoan sustaiak errotuta dituen altxor bat da. Kuxkuxtu transmisioa, kantua, zubia, militantzia, laguntasuna, arnas-bidea, festa herrigintza... da. Eguzki bat da, eguzki dirdiratsu bat». Hala xe deskribatzen dute Kuxkuxtu Txaranga, taldearen 40. urteurrena baliatuz Arri Iraetak egin duen dokumentalean. Zaila da horri taxuzko beste ezer gehitzea, baina esfortzuak merezi du. Kuxkuxtuk merezi duelako.

lean ere argi asko geratzen denez. Txarangaiko partaide askoren adierazpenak jasotzen ditu pelikulak, eta kide horietako asko bertaratu ziren aurkezpen ekitaldira, ordu eta erdiz zinema itxura hartu zuen ostatua leporaino betez eta sekulako giroa sortuz. Amaierako txalo zaparrada izan zen jendeak hartu zuen gozamenaren erakusle onena.

DESKUBRIMENDUA

Egiari zor, film hau Mondragon Unibertsitateko Ikus-Entzunezko Komunikazioko gradu amaierako lan bezala sortu zen. «Bakalau Elkarteko Pello Aranzabalek Mondragon Unibertsitatean proposatu zuen gaia. Aukeren artean zegoen, ikusi nuen eta gustatu egin zitzaidan. Sinplea izan zen alde horretatik. Nik ez nuen Kuxkuxtu eza gutzen. Iparra Hegoa ekimena bai, Batxilergo garaian Beasainen ikasi nuelako, baina Kuxkuxturen oroitzapenik ez neukan. Hasieratik atentzioa eman zidan proiektu bat izan zen, eta, Pellorekin hitz egin ahala, gero eta interes handiagoa piztu zidan gaiak», onartu digu Arri Iraetak.

Kuxkuxtu Txaranga ezagutzen dutenek ere ziur hainbat datu ezezagun aurkituko dituztela filmean, izenari dagokiona adibidez. Beñat Elizondok gogoratzen duenez, sorreran eta lehen urteetan Erburuko Txaranga bezala ezagutzen zen, baina Sustraina taldeko Patrick Mixelena "Mixu" kideak parte hartzen zuenez eta talde horren abesti famatu batean "kuxkuxtu-kuxkuxtu" ("makurtu-makurtu") abesten zuten, izen hori hartu zuen txarangak. Datu deigarriren bat ere bai: urtean 60 emanaldi egitera iritsi direla, adibidez.

Baina dokumentalaren egilearentzat Kuxkuxtu deskubrimendu bat izan den bezalaxe, filma ikusten duen jende askorentzat ere deskubrimendu eder bat izango da. «Proiektua gustatu zitzaidan, baina Kuxkuxturen inguruan ez zegoen apenas informaziorik interneten. Bideotxoren bat bai, baina gutxi gehiago. Beraz, beraiekin harremana iazko martxoaren lehen igandean izan nuen. Ez dakit zer egun zen zehazki, baina badakit martxoko lehen igandea





zela, urtero igande horretan Kuxkux-
tuko kideek sagardotegian bazkaria
egiten dutelako. Egun horretan hasi
nintzen lehen grabaketak egiten eta al-
di berean Kuxkuxtu ezagutzen».

Eta ikusi zuenarekin harrituta geratu
zen gipuzkoarra. «Pellok kontatu zidan
aurrez Kuxkuxtu zer talde berezia zen,
baina nik zuzenean jotzen ikusi nituen
arte ez nintzen benetan jabetu berezi-
tasun horretaz. Oso musikari onak di-
ra, baina ez dira beti batera jotzen du-
ten musikariak. Modu batera taldeari
lotuta dauden musikariak dira, baina
era berean askatasun handia dute nahi
dutenean jotzeko. Talde oso irekia da.
Denek dakizkitez jo beharreko abestiak,
baina ez dago eskema itxi bat, egitura
idatzi bat. Adibide bat jartzeagatik:
imajinatu zuk eta beste zazpi pertso-
nak "Euskal Herrian Euskaraz" jotzen
dakizuela, baina ez duzue adostu nola
joko duzuen. Kuxkuxturekin horrela
gertatzen da: denek dakite zer joko du-
ten, baina ez dute jaso partitura bat
zehatz nola jo behar den esaten duena.

**Lehen 10-12 urteetan Erburuko Txaranga bezala ezagutzen
zen, baina Sustraia taldeko abesti famatu batean
«kuxkuxtu-kuxkuxtu» ('makurtu-makurtu') abesten
zutenez, izen hori hartu zuen txarangak**

**«Taldeari lotuta dauden musikariak dira, baina askatasun
handia dute nahi dutenean jotzeko. Talde oso irekia da.
Denek dakizkitez jo beharreko abestiak, baina ez dago
eskema itxi bat», nabarmendu du Arri Iraetak**

Inprobisazio hori eta musikarien arte-
ko dinamika hori esperientzia oso bi-
txia eta berezia da», nabarmendu du
Iraetak taldearen ezaugarri hori nabar-
menduz.

Horrek eragiten du Kuxkuxturen bi
emanaldi inoiz ez izatea berdin-berdi-
nak. «Emanaldi guztiak desberdinak
dira, egun batean bost musikarik joko
dutelako eta hurrengoan 35 izan dai-
tezkeelako. Badaude hiruzpalau fin-
koak, beti jotzen dutenak, baina bes-
teak beharraren arabera batzen dira. Ez
da berdina kantu afari bat edo sanfer-
minetan kanean jotzea, eta horren ara-
bera, gehiago edo gutxiago joaten dira.
Sortzen diren melodiak, eta bakoitzak
ekartzen dituen detailtxoak beti des-
berdinak dira. Emanaldia asko alda-
tzen da egun batetik bestera».

KANTUA

Kuxkuxturen beste ezaugarrietako bat
kantua da, Ipar Euskal Herrian bizirik
eutsi diotelako Hego Euskal Herrian
galdutako ohiturari. «Beñatek aipatzen



Kuxkuxtu Txarangak
Sanferminetan urtero egiten duen
kalejiran ateratako bi argazki
–lehen orrian, Beñat Elizondo
taldeko arima soinua jotzen–, eta
Xaia ostatuko aurkezpenean
ateratako beste bi –goian, Arri
Iraeta dokumentalaren egilea
Beñatekin–.
ARRIKI.EUS - Patxi BELTZAIZ

du dokumentalean nola txaranga hi-
tzak esanahi desberdina duen Iparral-
dean eta Hegoaldean. Hegoaldean txar-
anga entzutean Tolosan goizaldeko
hiruretan aurkitzen dugun hori etor-
tzen zaigu burura, nolabait azaltzea-
rren. Baina Iparraldean txaranga kantu
jira estiloan ulertzen dute. Kantua dau-
ka txarangak», dio Arrik.

Erabilitako metodoa sinplea da. Li-
buruxka bat ateratzen dute abestien
letrarekin eta kantua ezagutzen ez
duenak bertan irakurrita abestu deza-
ke. Abesteko ohitura hori ere oso ga-
rrantzitsua izan da Kuxkuxtuk Ipar eta
Hego Euskal Herria lotzeko egin duen
zubi lanean. «Beñatek hori azpimarra-
tzen du: Hegoaldean, kantua galduta
zegoenez, sekulako harrera jaso zuten
lehen urteetan. Eta oraindik jasotzen
dute, zerbait berria delako. Agian gaur
egun kantu jira gehiago daude, baina,
aipatzen dutenez, duela 40 urte gauza
oso berritzailea zen. Harrera oso ona
izan zuten Hegoaldean». San Tomas
egunean Donostian edo Sanfermine-
tan Iruñean egiten dituzten urteroko
kalejira arrakastatsuak dira harrera
horren erakusle.

Baina eraikitako zubi horren adibide
onena Seguran antolatzen duten Ipa-
rra Hegoa ekimena da (ikus egitaraua).
Dokumentalean kontatzen da nola se-
gurar batzuek Baztandarren Biltza-
rrean ezagutu zuten Kuxkuxtu Txaran-
ga, 1994. urte inguruan. Apurka-apurka
harremana sendotzen joan zen eta Se-
guran ekitaldiren bat antolatzea eraba-
ki zuten. Hasieran kultur-bilkura txikia
zena, handitzen joan zen, eta aurten 27.
ekitaldia ospatzen ari dira. Hasieran el-
karte batean biltzen ziren, eta orain
karpa handi bat jarri behar izaten dute,
ikasleen arteko harremanak ere sor-
tzen dira... eta dena Kuxkuxtuk erein-
dako haziari esker.

Gainera, eta kantu guztiak euskaraz
abestu arren, emanaldiak liburuxka
batekin lagunduta egiteak aukera ema-
ten die munduko beste edozein bazte-
rretan ere giro paregabea sortzeko.
Korsika, Britainia, Flandria, Alemania
edo Nevada dira Kuxkuxtuk 40 urteo-
tan bisitatu dituen txokoetako batzuk.

MILITANTZIA

Euskara, giza harremanak, kale animazioa... Gai asko eta desberdinak lantzen ditu dokumentalak. «Kuxkuxturen barruan ehundaka gai daude, Kuxkuxturen inguruan milaka doku-serie egin litezke», dio Arri Iraetak. Baina, azken batean, musika sentimenduz eta militantziaz bizitzeko modua da beste guztien gainetik gailentzen dena.

«Ni musikalki gaztetxean hezi naizela esan daiteke, alde horretatik, hori ere musika oso modu militantean bizi den eremu bat da. Eta Kuxkuxtu ezagutzea baieztapen moduko bat izan zen. Proiektu oso desberdin bat deskubritu nuen, baina hari beretik sortutakoa nolabait. Hauek musika egiten dute benetan gustatzen zaielako, eta hori borroka desberdinetarako erabiltzen dute, benetan sentitzen dutelako. Ez da horrelako proiektu bakarra izango, baina ez daude horrelako hainbeste. Borondatez eta modu militantean kultura egiteko beste modu bat da», azpimarratu du musikaria ere baden Arri Iraetak.

«Ni musikaria naiz, bateria eta gitarra jotzen ditut, bateria Esanezin taldean gaur egun, eta Kuxkuxturen emandakia oso desberdinak iruditu zaizkit. Musikan ohikoa den kontzer-

tuen eskema itxi horrekin alderatuta, Kuxkuxtu justu kontrakoa da; ekarri nahi duzuna, ahal duzuna. Neurri batzuen barruan, noski, musika hizkuntza bat delako eta besteekin gutxieneko bat konpartitu behar duzulako, baina oso askea da», gehitu du.

Aurreratu digunez, dokumentala beste herri batzuetan aurkezteko asmoa dute. «Badaude interesa agertu duten herriak. Kuxkuxtuk bere hazia erein duen herri horietan batez ere. Seguran, esaterako, Hendaian ere nahi genuke... Zabalduko dugu, zenbateraino gero ikusi beharko da». Xaia osatuko aurkezpen ekitaldia kantuan eta festa giroan nola amaitu zen ikusita, ziur bidea irekita dagoela.

«Txaranga hitzak esanahi desberdina du Iparraldean eta Hegoaldean. Iparraldean txaranga kantu jira estiloan ulertzen dute. Kantua dauka txarangak»

«Musika egiten dute benetan gustatzen zaielako, eta hori borroka desberdinetarako erabiltzen dute, benetan sentitzen dutelako»



IPARRA HEGOA
ASTE NAGUSIA (SEGURA)

Martxoak 4, astelehena

11.00 Urruñako haurrei harrera eta hamaiketakoa
14.30 Segurako eskolara bisita. Bertan elkar ezagutzeko aurkezpen eta jolasak
17.00 Buruhandiak plazan
19.00 Hitzaldia: “Kantua herri kohesiorako eta herri erresistentziarako” (Jon Maia, Beñat Sarasola, Joanes Borda, Eneko Labeguerie – Guk taldea– eta Marina Landa)

Martxoak 5, asteartea

10.00-12.00 Talo tailerra eta jolas libre, Urruñak eta Segurako haurrak elkarrekin
12.15 Segura Irratian elkarriketa
13.00 Bazkaria Elorri
14.30 Dantza gidatuak Kiki Bordaxoren eskutik, Urruñako eta Segurako haurrentzat
16.30 Txokolate beroa denentzat
17.00 Urruñako haurrei agurra
19.00 Hitzaldia: “Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko” (Karine Etxeberri – Xendarineko ahizpak–, Olaia Inziarte, Lide Hernando eta Joseba Tapia)

Martxoak 6, asteazkena

19.00 Sukaldaritza tailerra: Mondeju zuriaren eta Axoaren inguruan Elorri

Martxoak 7, osteguna

14.30 Etxepareko ikasleei harrera
16.30 Haurrentzako jolasak eta Korrika txikirako petoak

egitea karpan

17.30 Korrika txikia
19.30 Bertso eta kantu poteoa: Kuxkuxtu, Onintza Enbeita eta Amets Arzallus
21.30 Bertso-kantu afaria

Martxoak 8, ostirala

09.15 Etxepareko ikasleen bisita Lazkaoko artxibategira
16.30 Haur jolasak
18.30 Martxoak 8ko manifestazioa eta ekitaldia herriko eragileekin batera
19.30 Arkumea burruntzian
21.30 Ixtaklok kale animazioa
23.30 Kontzertua: Frigo. Ondoren DJ Bull

Martxoak 9, larunbata

09.00 Mendi ibilaldia
12.00 Boteluzea
13.00 Aperitifa Lizeoko txarangarekin
15.00 Bazkaria karpan, Baigorriko musikariek girotuta
18.00 Rakatapunk kale animazioa
19.00 Taloak eta Euskal Herriko garagardo dastaketa
23.00 Kontzertua: Balantza - Kontrabanda. Ondoren: Expuela - Etxepareko DJak

Martxoak 10, igandea

10.00 Sukalki prestaketa
11.00 Kale animazioa gaitero eta zantzarrekin
13.00 Gereziondoko ekitaldia
13.30 Txakolin dastaketa
15.00 Herri bazkaria Kuxkuxtuk alaituta
16.00 Sukaldaritza lehiaketako sari banaketa
16.30 Imuntzo eta Beloki